

# ZAZPI PISTAK

**Materiala:** fitxak eta arbel txikia edo folioak erantzunak emateko.

**Jokatzeko era:**

Ikasleak taldeka izango ditugu antolaturik. Talde bakoitzak folioak edo arbel txiki bat izango du erantzunak emateko. Ikasle batek fitxa bat hartu eta lehenengo pista irakurriko du. Talde bakoitzean igartzen saiatuko dira. Erantzuna izanez gero idatzi egingo dute, baina dinamizatzaileak esan arte ez dute folioa edo arbela altxatuko.

Dinamizatzaileak (irakurri duena) 1, 2 eta 3 esan ondoren erantzuna idatzita duten taldeek arbela edo folioak altxatuko dituzte.

Igarri dutenek: 1. pistan 7 puntu, 2. pistan 6 puntu, 3. pistan 5 puntu..., 7. pistan puntu bat. Igarri ez dutenek hurrengo pista ematerakoan ezin izango dute parte hartu, hau da txandapasa bat izango dute.



ZAZPI PISTAK	
1.	Ez naiz pertsonaia erreala.
2.	Basoan bizi naiz.
3.	Urtero bisitatzen zaituztet.
4.	Zikin-zikin ibiltzen naiz.
5.	Euskal Herriko haurrek atsegin naute.
6.	Opariak banatzen ditut.
7.	Begi gorriak ditut.
OLENTZERO	

